


40. atala: Bakarka

Artistak

40.1.- Entzun audioa. Hemen behean zerrendatzen zaizkizun ezaugarriak Txillidarekin edo Oteizarekin lotzen dira entzungaian. Zein norekin?

| | TXILLIDA | OTEIZA |
|---------------------------|----------|--------|
| Bizar zuria | | |
| Eskarola-ilea duena | | |
| Seme-alaba asko dituena | | |
| Telurikoa | | |
| Aitona marmartia | | |
| Etxe ederra eta terrenoak | | |






40.2.- Entzungaiaren arabera, adierazpen batzuk dituzu hemen. Horietako hiru ez dira esaten, sobera daude. Azpimarratu.

- Kevini ez zaio gustatzen Hal-lone; guztia zelatatzen duen begia dela iruditzen zaio.
- Tasiari mesedegarria iruditzen zaio duela 50 urteko albisteak irakurtzea, oraina ulertzen laguntzen dute.
- Tasiok dio herri baten arima erakusten duela kulturak.
- Oteiza petral samarra zela zioen jendeak.
- Txillida Leku zabaltzeko negoziazioetan jarraitzen dute familiarekin.
- Txillida Leku museoa zabalik egon da urte batzuetan.
- Donostia 2016koak onak dira autopromozioan.
- Donostia 2016 programaren barnean artista ugari ibili da.

40. atala: Bakarka

40.3.- Hemen dituzu hainbat euskal artista. Asmatuko zenuke argazkia, izena eta bakoitzaren arloa lotzen?

| | | |
|---|---------------------|----------------|
|  | Nestor Basterretxea | Bertsolaria |
|  | Jon Maia | Eskulturagilea |
|  | Maialen Lujanbio | Idazlea |
|  | Jose Luis Zumeta | Kantaria |
|  | Ainhoa Arteta | Aktorea |
|  | Elene Irureta | Margolaria |
|  | Anjel Lertxundi | Dantzaria |



40. atala: Bakarka

Transkripzioa (03:03)

- T- Aspaldi ez diagu Hal-ione kontsultatu.
 K- Zertarako? Gainera, atzo itzali egin nuen.
 T- Itzali?
 K- Bai, itzali. Ez dut atsegin argi gorri hori. Begi bat dirudi. Guztia zelatatzen duen begia.
 T- Berriz ere paranoiko, e? Pilulak hartzen hasi haiz berriro?
 K- Ez, baina ez daukadalako bakarra ere eskura.
 K- Zertarako behar dugu guk duela 50 urteko datuak soilik dituen ordenadore bat?
 T- Tira, tira, iraganeko albisteak irakurtzea mesedegarria izaten duk askotan, oraina ulertzeko.
 K- Ja, aber, azaltzen den lehendabizikoa: 2016. urteko Europako Hiriburutzako programa azaltzeko programa iragartzen dute hemen. Ea, zer ikasi dugu honekin?
 T- Donostia 2016ko programa esan nahi duk, ezta?
 K- Ez, ez. 2016. urteko Europar Kultur Hiriburutzaren programa azaltzeko programa berezia.
 T- Uste diat oraindik existitzen duala **Donostia 2016** fundazioa.
 K- Ziurrenik 50 urte daramatzate orduan gertatutakoa azaltzen.
 T- Bueno, badakik, zaila izaten dela arte garaikidea ulertzea.
 K- Niri arte eta kultura-kontuak ez zaizkit batere interesatzen.
 T- Aber, Johnson, jakin beharko hukek artea, kultura, duala herri baten arimaren erakusleioa.
 K- E, Tasio, zuri bakarrik okurritzen zaizkizu horrelako esaldiak.
 T- Ni Oteiza zalea nauk.
 K- Oteiza? Hori nor da? Beti haserre zegoen bizar zuria edo makina bat seme-alaba zuen eskarola-ilea zuena?
 T- Bizar zuria.
 K- Besteak nola, nola izena zuen?
 T- Txillida.
 K- Eta hau zer da, kirolean bezala? Bata edo bestea aukeratu behar al da?
 T- Oteizaren lana telurikoa duk.
 K- Nongoa?
 T- Telurikoa, lur planetari lotuta dagoena, alegia, telurikoa.
 K- Nahi duzuna. Niretzat beti haserre zegoen aitona marmarti bat zen.
 T- Hi, orduan, Txillida zalea haiz, ezta?
 K- Niri, bai bata eta bai bestea, berdin zaizkit. Orain, Txillida horrek behintzat etxe ederra eta terrenoak bazituen.
 T- Bai, etxea eta terrenoak bai, baina oraindik Txillida Leku zabaltzeko negoziaketetan zebiltzak familiarekin, atera kontuak!
 K- Bada, honez gero, haren ondorengoak ehun bat izango dira erraz.
 T- Aizak, eta Donostia 2016ko programa hartatik zerbaitek deitzen al dik atentzioa?
 K- Bada, bereziki gauza batek: egitasmo ezberdinen aurkezpen-argazki guztietan, beti hiru edo lau pertsona azaltzen direla, beti pertsona berdinak, gainera.
 T- Artistak?
 K- Bai, beren burua promozionatzen artistak, dudarik gabe.

Erantzunak








40.1.-

| | Txillida | Oteiza |
|---------------------------|----------|--------|
| Bizar zuria | | ✓ |
| Eskarola-ilea duena | ✓ | |
| Seme-alaba asko dituen | ✓ | |
| Telurikoa | | ✓ |
| Aitona marmartia | | ✓ |
| Etxe ederra eta terrenoak | ✓ | |

40. atala: Bakarka

- 40.2.-
- Oteizak petral samarra zela zioen jendeak.
 - Txillida Leku museoa zabalik egon da urte batzuetan.
 - Donostia 2016 programaren barnean artista ugari ibili da.

40.3.-

| | | |
|---|---------------------|----------------|
|  | Nestor Basterretxea | Eskulturagilea |
|  | Jon Maia | Dantzaria |
|  | Maialen Lujanbio | Bertsolaria |
|  | Jose Luis Zumeta | Margolaria |
|  | Ainhoa Arteta | Kantaria |
|  | Elene Irureta | Aktorea |
|  | Anjel Lertxundi | Idazlea |